

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA<



2012_{ko}
MEMORIA



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA**

2012ko
MEMORIA

Andoainen, 2013ko urtarrilean

**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA**

Martin Ugalde
Kultur Parkea
20140 Andoain
Tel.: 943 592 556

Luzarra Kalea 10
48014 Bilbo
kluster@soziolinguistika.org
www.soziolinguistika.org

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA ELKARTEA


OHOREZKO BAZKIDEA



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE


ERAKUNDE BAZKIDEAK

	EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila		BAI Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte
	EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila		Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK)
	EHU-UPVko Soziologia II Saila		Gipuzkoa Donostia Kutxa
	Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea		Euskadiko Kutxa
	Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea (HUHEZI)		Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte (NETeLE)
	Eusko Ikaskuntza		UEMA
	Euskal Herriko Ikastolak		Hernaniko Udala
	ELHUYAR Aholkularitza		Zumaia Udala
	ARTEZ Euskara Zerbitzua		Tolosako Udala
	EMUN Kooperatiba		Bermeoko Udala
	Ebate Hizkuntza Zerbitzuak		Erandioko Udala
	AZTIKER Ikergunea		Donostiako Udala
	Gipuzkoako Urtxintxa eskola		Errenteriako Udala
	Topagunea. Euskara Elkarten Federazioa		



Aurkibidea

SOZIOLOGIA KLUSTERRA ELKARTEA: ERAKUNDE BAZKIDEAK	5
SAR HITZA	9
SOZIOLOGIA KLUSTERRA ELKARTEA: LEHEN, ORAIN ETA GERO	11
SOZIOLOGIA KLUSTERRA ELKARTEAREN ANTOLAKETA	12
Antolaketa-eredua: Klusterra	12
Soziologia Klusterraren antolaketa	12
SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN 2012-2015 PLAN ESTRATEGIKOA	13
SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN MISIOA, BISIOA ETA BALIOAK	13
SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN 2012-2015 ILDO ESTRATEGIKOAK	14
1. Soziologia arloko ikerketa, garapena eta berrikuntza agente bihurtzea (I+G+b AGENTEA)	14
2. Soziologia arloko ezagutza kudeatzeko agente bihurtzea	14
3. Nazioartekotzea	15
4. Erakunde berritzaile bihurtzea	15
5. Erakunde ekonomikoki sendotzea	15
6. SLK-ren izaera eta egituratzeari buruz hausnartzea, erabakitzea eta gauzatzea	15
LANKIDETZAK	16
PROIEKTUAK	17
IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA	18
1. ARRUE: ikasleen eskola-giroko hizkuntza erabilera	18
2. EraLan 3	18
3. ALDAHITZ: hizkuntza-ohituren aldaketa	19
4. Unibertsitateko ekintza-ikerkuntza egitasmoa	19
5. Hizkuntzen egoera soziala Euskal Herrian	20
6. Euskal Herriko kaleetako hizkuntza-erabileraren neurketa	20
7. Gazteak, sare sozialak eta hizkuntza-kudeaketa	21
8. Gasteizko gazteak: ikerketa eta lantegiak	21
9. Hizkuntza-ekologia: eredu teorikoaren garapena	22
EZAGUTZAREN KUDEAKETA	23
1. BAT Soziologia Aldizkaria	23
2. Euskal Soziologia jardunaldiak	24
3. Soziologia ikastaroak EHUren udako ikastaroetan	25
4. Soziologia ikastaroak UEUren udako ikastaroetan	25
5. Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak	26
6. HAUSNARTU. Euskal Soziologia Sariak	27
7. Ahozko hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko metodoen argitalpena	28
8. Formazio-saioak eta jardunaldiak	29
9. Soziologikaz berripapera	29
10. INTERNETA	29
Webgunea	30
Sare sozialetan: Twitter eta facebook	31



Sar hitza

2012ko urtarrilean Hausnarketa Estrategikoaren bidaia egiteko prestaketak abiatu genituen Soziolinguistika Klusterra Elkartean. Halakoetan egin ohi den moduan erabaki egin behar izan genuen norekin, nora...

Bidaia-lagunak hautatzeko orduan, Elkartea osatzen duten bazkideez gain kideen aniztasuna irizpide garrantzitsua izan da guretzat. Horregatik, unibertsitate-arloko aditu, gizarte-eragile, enpresa, kolaboratzaile eta administrazioari gonbita egin genien elkarrekin abiatzeko. Gure eskerrik beroena bidaia-lagun guztioi, guretzat benetan aberasgarria eta garrantzitsua izan baita zuen parte-hartzea.

Bidaia-taldea osatuta, bidaia-poltsa ere prestatu genuen. Batetik, Elkartea osatzen dugun erakunde eta kideen ezagutza eta eskarmentua: barrutik kanporako ikuspegia. Bestetik, Hausnarketa Estrategikoan parte hartu duten eragile eta adituen ezagutza eta eskarmentua: kanpotik barrurako ikuspegia. Azkenik, 2012ra arte egingdako ibilbideak emandakotik lorpenak, ikasitakoak, hobetzekoak eta egindako lanaren aitorenak ere gure bidaia-poltsan sartu genituen, elementu garrantzitsuak izan baitira.

Guztion artean nora iritsi nahi genuen adostea zegokigun; izan ere, “ez dago haize onik nora joan ez dakienarentzat” (Séneca). Gure lehen helmuga Elkartearen misioa adostea izan zen: soziolinguistika ezagutza sortzea eta kudeatzea dela adostu genuen.

Geurekin batera eraman beharrekoak hartuta, helmugara iristeko plana diseinatzeko tarte hartu genuen. Jomugara iristeko estrategiak pentsatzea zegokigun. Horrela bada, 2012-2015 urte tarterako Plan Estrategikoa diseinatu eta erabaki genuen. 2016an gure erakundea soziolinguistika arloko ikerketa, garapen eta berrikuntza eragilea eta ezagutza kudeatzeko eragilea izatea nahi dugu, baita nazioartekoa, berritzailea, erakunde sendoa eta anitza ere.

Bidaiak irudikatu eta pentsatzeaz gain, mugituz egiten dira, urratsak emanez, aurrera eta ingurura begira, aldatu eginez, eta horixe egin dugu 2012an zehar.

Arlo askotako ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak egin ditugu: Eralan, Aldahitz, Gasteizko gazteak eta euskara, Gazteak, sare sozialak eta hizkuntza-kudeaketa, Unibertsitateko ikasle-taldeekin interbentzioak, Arrue,

hizkuntzen egoera sozialari buruzko Adierazle Sistema eta Ahozko Kale-Erabilera.

Horiekin batera, soziolinguistika-arloko ezagutza kudeatzeko proiektuak garatu ditugu: soziolinguistika ikastaroak, EHUKo eta UEUKo udako ikastaroak, Hausnartu sariak, Euskararen Normalizazio-Kasu aurreratuak, eta Behaketa Bidezko Metodoen argitalpena, besteak beste.

Lan-proiektu batzuk aurreko urteetako bidaietan ere garatu ditugu; horiek gure ibilbideko tontorrak dira, erreferentziazko puntuak, sendoak eta hazten jarraitzen dutenak. Beste proiektu batzuen bidez, aldiz, bidezidor berriak irekitzen ari gara.

Nazioartekotzean ere urratsak ematen hasi gara, proiektuak Europara hurbildu baititugu. Erakundea sendotzeko urrats garrantzitsua eman dugu, Mintzolarekin lortutako akordioa horren adibide. Berrikuntza etengabe txertatzen ari gara egiteko moduan, zerbitzuetan zein produktuetan; eta hortik harago ere bai, pertsonengan oinarritutako berrikuntzan, alegia.


Soziolinguistika Klusterra osatzen dugun erakunde bazkideekin batera, gure motorra bulegoko lankideek ere osatzen dute. Klusterraren baliorik handiena pertsonak eta horiek ordezkatzeko dituzten erakundeak dira, hain zuzen ere. Horregatik, bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu Zuzendaritzan parte hartzen duzuen pertsonen eta ordezkatzeko dituzuen erakundeen, baita bulego teknikoko lankideen ere, bidaiari apartak direlako; bidean, ilusioa, umorea, ausardia eta lankidetzak eskaintzeagatik.

Era berean, erakunde gehiagok ere gurekin bidaiatzeko gogoia agertu dute: Euskaltzaindia, UEMA, Euskadiko Kutxa, Errenteriako Udala, Zumaiako Udala eta Donostiako Udala. Beraz, gure poza adierazi nahi dizuegu desberdinen arteko sarea eraikitzen jarraitzen dugulako, erakunde anitza osatzen. Ongi etorri guztioi.

Bukatzeko, ekindako bidean aurkitzen ditugun bidelagunekin geroarekin, itsaso, ibai eta erreketan eta bidezidordetan zehar, elkarrekin gozatzen eta ikasten jarraitzeko gonbita egiten dizuet lerro hauen bidez.

Estiñe Astorkia

Soziolinguistika Klusterra Elkarteko lehendakaria



Soziolinguistika Klusterra Elkartea: lehen, orain eta gero

Soziolinguistika Klusterra sortzeko proiektua 2000ko azaroan egituratu zen “Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen” Sinposiumeko erakunde antolatzaileek eginitako azterketaren bidez. Bertan, ezagutza soziolinguistikoaren ikerketa— eta zabalpen-gune baten gabezia eta beharra jasotzen zen; Euskal Herrian hizkuntzaren normalizazio-prozesuan inplikaturik dauden erakundeei eta taldeei (pribatu, publiko zein gizarte-mailako) arlo zientifikotik eta aplikatutik laguntza eskaini eta, beren jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta beren emaitzak hobetzeko.

Geroztik, Soziolinguistika Klusterra sortzeko ahaleginetan bat egin zuten hainbat eragilek. Hasieratik zeudenekin (NUP-UPNAko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, UPV-EHUko Soziologia I eta II Sailak, Mondragon Unibertsitateko Humanitateak Fakultatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea eta SEI Elkartea) bat egin zuten Elhuyar Aholkularitzak, Emun Kooperatibak, UPV-EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak eta Eusko Ikaskuntzak.

Klusterra sortzearen aldeko bidean gaiaren inguruko eztabaidan sakontzen eta adostasunak bilatzen lan egin zuten: arloko eragileekin aurrez-aurreko bilerak eginez, eztabaidarako foroak antolatuz eta lankidetzarako hitzarmenak sinatuz (2001eko maiatzean «Soziolinguistika Institutua Klusterra»-ren aldeko Lankidetzako Protokoloa, 2001eko azaroan «SIKeraiki» Lan-Jardunaldia...).

Azkenik, 2004ko martxoaren 30ean Soziolinguistika Klusterraren eraketa batzarra egin zen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean.

Harez geroztik, urtez urte sendotzen doan proiektua da Klusterra; bere funtzioa ahalik eta modu sendoenean bete nahi duena eta euskal eragileen artean kalitatezko

zerbitzua eskaini nahi duena, bai maila teorikoan baita aplikazio praktikoetan aholkularitza behar dutenen artean ere.

Egun, Soziolinguistika Klusterra irabazi asmorik gabeko elkartea da eta Berrikuntzako Bitarteko Erakundea izatera aitortua du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragile gisa. 2012an Plan Estrategikoa landu dugu eta etorkizunera begira jarri gara: besteak beste, 2016ra bitartean nora joan eta zein bide jarraituko dugun adostu dugu. Lehendakariak aipatu du zeintzuk diren gure iparra eta gure bidea.

Soziolinguistika Klusterra Elkartek soziolinguistikaren eremuan ikertu, garatu eta berritu nahi du; ezagutza sortu eta partekatu. Euskal Herrian beste arlo askotan ikertu, garatu eta berritzen da. Zentzu horretan, beste arlo batzuetako I+G+b politika, estrategia, sistema eta kultura horiek ekarri nahi ditugu soziolinguistikaren arlora. Zer ikertu, garatu eta berritua badago, baita horretarako gaitasuna eta ezagutza ere. Horretaz baliatu nahi dugu, eta ezagutza hori sortzeko baldintza egokiak sortu. Ezagutza fluxua abian jarri nahi dugu.

Hori guztia sarean, elkarlanean, osagarritasunean egin nahi eta behar dugu; beraz, unibertsitateak, instituzioak, gizarte-eragileak eta esku hartze eragileak soziolinguistikaren arloko I+G+b eta ezagutza trukatzearen ekosistemara gonbidatu nahi ditugu. Ez ikusle, begirale edo diru emaile izateko, parte izateko baizik.

Errealitate soziolinguistikoa modu integralean ulertu nahi dugu eta hizkuntzen, hiztunen eta hiztun komunitateen elkarbizitzari ekarpena egin. Ezagutzak zentzu horretan, ekarpen esanguratsua egin dezakeela iruditzen zaigu. Lerro hauek gonbidapen ere badira: gure iparrean eta gure bidean bidailagun izateko, hain zuzen ere.

Ibon Usarralde Lasarte
Soziolinguistika Klusterra Elkarteko kudeatzailea

Soziolinguistika Klusterra Elkartearen antolaketa

Antolaketa-eredua: Klusterra


Esan bezala, Soziolinguistika Klusterra irabazi asmo-erik gabeko elkartea da eta aldi berean, Berrikuntzako Bitarteko Erakundea izaera aitortua du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragile gisa.

Klusterrak izaera ezberdina duten entitateak lotzen ditu elkarren artean: herri-erakundeak, unibertsitateak, gizarte-eragileak eta esku-hartze eragileak. Guztiek dute helburu euskararen biziberritze-ahaleginean

ahalik eta modu eraginkorrean aritzea. Klusterrak lortzen du horrela interes partekatua duten entitateen, enpresen, eta instituzioen artean talde-lanak sendotzea eta sinergiak sortzea.

Kooperazio-egitura horiek baliatuz ezagutzaren hedapenari bide egitea du helburu Klusterrak eta ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea. Horregatik erakunde desberdinen artean eginiko proiektuek lehenetasuna izan ohi dute gurean.

Soziolinguistika Klusterraren antolaketa



Soziolinguistika Klusterraren 2012-2015 Plan Estrategikoa

2012-2015 Plan Estrategikoan adostu ditugu Elkartearen misio, bisio, balio eta ildo estrategikoak.

Soziolinguistika Klusterraren misioa, bisioa eta balioak

MISIOA

Soziolinguistika Klusterra Elkartearen misioa **soziolinguistika-ezagutza sortzea eta kudeatzea** da.

Horretarako **zientifikotasunez, autonomiaz, errespetuz eta gardentasunez** jardungo du:

- **Bazkideekin eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak** osatuko ditu.
- **Ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutza kudeatzeko proiektuak** egingo ditu.
- Euskara eta euskal hiztun komunitatearentzako baliagarriak diren **marko teorikoak** garatuko ditu.
- Ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko **zubiak** eraikiko ditu.
- **Ikerkuntza-ekintza** paradigma ardatz duten proiektuak landuko ditu.

BISIOA

Soziolinguistika Klusterra Elkartek euskal hiztun komunitatearen erronkei, interesei eta beharrei eta euskal soziolinguistika ezagutza teorikoaren garapen beharrei erantzuteko **diziplinarteko eta kalitatezko ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutzeko kudeatzeko proiektuak lankidetzan burutuko ditu.**

BALIOAK

- **Euskararen hiztun komunitatea** bere osotasunean **aintzat hartu eta bere alde** jardungo du.
- Ekimen aplikatua arreta bereziz landuko du; errealitate soziolinguistikoa eraldatu nahi baitu.
- **Proiektuetan kalitatea** bermatuko du; zientifikotasunez eta gardentasunez arituko da.
- Bazkideen interes eta proposamenetatik abiatuz, **interes orokorreko proiektuak** garatuko ditu.
- **Bazkideen jarduera errespetatu eta indartuko du**, konkurrentzia saihestuz eta osagarritasuna bilatuz.
- Soziolinguistikaren arloan eta **inguruko arloetan ari direnak kontuan hartuko ditu.**
- **Osagarritasuna kideen artean.** Helburuak lortzeko bakoitzak egindako ekarpenak kontuan hartuko dira.
- **Bazkideei emaitza onuragarriak eta erabilgarriak** eskainiko dizkie.
- Elkartek bokazio publikoa duenez, **gizarte-mailan bere emaitzak zabalduko ditu.**
- Elkartek **gizarte-erantzukizunez** jokatuiko du.
- **Talde-lana, lankidetzaren eta hurbiltasuneko harremana** izango ditu oinarri.

Soziolinguistika Klusterraren 2012-2015 ildo estrategikoak

1 SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA AGENTE BIHURTZE (I+G+b AGENTE)

Nondik abiatuta

- SLK osatzen dutenen hausnarketetatik.
- SLK-ren inguruko eragileen hausnarketa eta harremanetatik.
- SLK-k egiten duen zaintza teknologikotik. Zaintzatik jasotako informazioaren bidez, I+G+b proiektuak SLK-k dituen estrategien arabera aukeratuz, ondoren definituz, bideragarritasuna aztertuz, eta azkenik eginez.

Zaindu → estrategia → definizioa → egin

Helburuak

- Euskal hiztun komunitatearen egungo eta etorkizun hurbileko erronka, interes eta beharrei erantzutea.
- Euskal soziolinguistika ezagutzaren garapen beharrei erantzutea.
- Gertaera sozialak azaldu, aurreikusi eta kontrolatzea, metodologia kuantitatiboak erabiliz.
- Jokabide sozialen zentzua eta esangurak konprenitzea, metodologia kualitatiboak erabiliz.

Nola

- Ezagutza teorikoa eta praktikoa elkar lotuz.
- Hainbat diziplina uztartuz.
- Lankidetzan.
- Proiektuak maila mikroan edo makroan eginez.

Zer

- Oinarrizko ikerketa proiektuak.
- Ikerketa aplikatuko proiektuak.
- Garapen proiektuak.
- Berrikuntza proiektuak.

Iraupena

- Epe motzeko, ertaineko eta luzerako proiektuak.

2 SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO EZAGUTZA KUDEATZEKO AGENTE BIHURTZE

Nondik abiatuta

- SLK osatzen dutenen hausnarketetatik.
- SLK-ren inguruko eragileen hausnarketa eta harremanetatik.
- SLK-k egiten duen zaintza teknologikotik. Zaintzatik jasotako informazioaren bidez, ezagutza kudeatzeko proiektuak SLK-k dituen estrategien arabera aukeratuz, ondoren definituz, bideragarritasuna aztertuz, eta azkenik eginez.

Zaindu → estrategia → definizioa → egin

Helburuak

- Soziolinguistika ezagutza kudeatzea, dibulгатzea edo gizarteratzea:
 - SLK-k egiten dituen I+G+b proiektuetatik ezagutza sortzea.
 - Soziolinguistika arloan Euskal Herrian nahiz atzerrian sortzen den ezagutza zabaltzea.

Nola

Soziolinguistika arloko ezagutza gaur egun kudeatzen duten erakunde, ikerlari, aditu eta bestelakoekin **elkarlanerako** sareak lantzea ezinbestekoa da.

Zer

- Jardunaldi, mintegi, topaketa eta praktika komunitatea.
- Erreferentzia bibliografikoa.
- Argitalpenak.
- Formazioa.
- Interneteko tresnak: webgunea, sare sozialak eta soziolinguistika telebista.

Norabidea

- Kanpotik barrura eta barrutik kanpora.
- Norabide bikoitza: eman eta jaso, eztabaida eta kontrastea sustatuz.

3

NAZIOARTEKOTZEA

Nazioarteko soziolinguistika-ezagutzaren zaintza teknologikoa egitea

Horretarako, zer zainduko dugu?

- Soziolinguistika-arloko nazioarteko I+G+b proiektuak.
- Soziolinguistika-arloko ezagutza kudeatzeko nazioarteko proiektuak.
- Soziolinguistika-arloko nazioarteko agenteak.
- Soziolinguistika-arloko nazioarteko sareak.

Nazioarteko eragileekin harremana bideratzea

- Erakundeak egiten dituen I+G+b proiektuak nazioarteko eragileekin batera lantzea.
- Nazioarteko proiektuetan parte hartzea.
- Soziolinguistika-arloko nazioarteko eragileekin harreman-sarea osatu eta lankidetzan aritzea.

Produktuak eta ezagutza nazioartera hedatzea

- I+G+b proiektu horietatik eratorritako produktuak edo ezagutza nazioartean hedatzea eta kontrastatzea.

Nazioarteko produktuak eta ezagutza gurera ekartzea

- Ezagutza eta produktuak eramango ditu hemendik nazioartera eta alderantziz, kanpotik, produktuak eta ezagutza ekarriko du gurera.

4

ERAKUNDE BERRITZAILE BIHURTZEA

Erakunde berritzaile izaera sendotzea

- Malgutasuna lantzea: ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak eta, ezagutza kudeatzeko proiektuak egiteko gaitasuna handituz.
- Lan-taldea sendotzea.
- Helburu estrategikoen arabera kudeatzea.
- Planifikazio estrategikoa eta eguneroko zereginak uztartzea.
- Erdigunea pertsonengan jartzea.

5

ERAKUNDEA EKONOMIKOKI SENDOTZEA

- Diru-sarreraren bolumena handitzea.
- Diru-sarrera finkoak handitzea.

6

SLK-REN IZAERA ETA EGITURATZEARI BURUZ HAUSNARTZEA, ERABAKITZEA ETA GAUZATZEA

Berrikuntzako bitarteko erakunde izateak I+G+b eta ezagutza kudeatzeko proiektuak garatzeko posizio egokian kokatzen du

- Proiektu horiek ikerkuntza-ekintza paradigmaren arabera, eta arlo teorikoa eta aplikatua uztartuz lantzeko ahalik eta egituratze egokiena izan behar du.
- Nazioartekotzearen ildo estrategikoari ekiteko ahalik eta egitura egokiena izan behar du.

Lau eragile biltzeko moduko egituratze mota behar du

- Administrazioa.
- Unibertsitatea.
- Esku-hartze eragileak.
- Gizarte eragileak.

Izaerari buruz

- Zientifikoa, gardena, autonomia, independentea, sarea-nerbio sistema (eragileen interes eta beharren bilgunea eta elkarrekin lanean), prokomuna.

Egituratzeari buruz

- Arina, malgua, balio erantsia sortzen duten zereginetan arituko dena, gertukoa, parte-hartzailea, misioa, bisioa, helburu estrategikoak, estrategiak, izaera kontuan hartuta eragile horiek hobekien bilduko dituen erakundetze mota.
- Unibertsitateekin egiturazko eta proiektu mailako harremana beharrezkoa du.
- Ekonomikoki sendotzen gehien lagunduko duen egituratzea behar du.

Lankidetzak

EHU: EHUko udako ikastaroetan soziolinguistikaren inguruko ondorengo ikastaroa antolatu dugu: *Euskararen erabileraren bilakaera, egoera eta norabidea, datuen argitan*.

KUTXA: Zabalegi finkan EKOGUNEA proiektua garatzen ari da KUTXA, garapen iraunkorrari buruzko gune gisa. Gune horretan, besteak beste, hizkuntzen ekologia eta hizkuntzen garapen iraunkorra landuko da. Hizkuntza-ekologiaren inguruko erakusketa eta proiektuen garapenerako aholkularitza eskaini diogu KUTXAri.

HABE liburutegia: proiektuetarako erreferentzia bibliografikoak eskuratzeko eta liburutegiko funtsaren zabalpena egiteko lankidetzak jarraitu dugu.

ASMOZ Fundazioa: urtero bezala, HIZNET Hizkuntza-Plangintza Ikastaroko ikastaro laguntzaile izan gara.

EUSKALTZAINDIA: hitzarmena sinatu dugu ikerketa proiektuan elkarrekin lantzeko.





Proiektuak

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

- 1 **ARRUE:** ikasleen eskola-giroko hizkuntza erabilera
- 2 **EraLan 3**
- 3 **ALDAHITZ:** Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan-munduan
- 4 **Unibertsitateko ekintza-ikerkuntza egitasmoa**
- 5 **Hizkuntzen egoera soziala Euskal Herrian**
- 6 **Euskal Herriko Kaleetako Hizkuntza-erabileraren Neurketa**
- 7 **Gazteak, sare sozialak eta hizkuntza-kudeaketa**
- 8 **Gasteizko gazteak: ikerketa eta lantegiak**
- 9 **Hizkuntza-ekologia: eredu teorikoaren garapena**

EZAGUTZAREN KUDEAKETA

- 1 **BAT** - Soziolinguistika Aldizkaria
- 2 **Euskal Soziolinguistika Jardunaldiak**
- 3 **Soziolinguistika ikastaroa EHUren udako ikastaroetan**
- 4 **Soziolinguistika ikastaroa UEUren udako ikastaroetan**
- 5 **Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak**
- 6 **HAUSNARTU** - Euskal Soziolinguistika Sariak
- 7 **Ahozko hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko metodoen argitalpena**
- 8 **Formazio-saioak eta jardunaldiak**
- 9 **Soziolinguistikaz berripapera**
- 10 **Interneta**
 - Webgunea
 - Sare sozialak: Twitter eta Facebook

Proiektuak

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Soziolinguistika Klusterra Elkartearen misioa soziolinguistika ezagutza sortzea da. Horretarako ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak egiten ditugu arloko irakasle, ikerlari, adituen eta bazkideen zuzendaritza edota lankidetzarekin. Modu horretara, unibertsitatearen eta gainerako eragileen arteko zubi lana egitea nahi du.

1

ARRUE

IKASLEEN ESKOLA-GIROKO HIZKUNTZA-ERABILERA

Zuzendaria: Iñaki Martínez de Luna (EHU)
Koordinatzaileak: Pablo Suberbiola eta Asier Basurto
p.suberbiola@soziolinguistika.org
a.basurto@soziolinguistika.org

Arrue EAEko haur eta gazteen eskola-giroko hizkuntza-erabilera ikertzeko sortutako proiektua da. Ikerketa honen helburua eskolako hizkuntza-erabileran zein alda- gaik eragiten duten ikertzea da, edo, hobeto esateko, nolako lotura duen eskolako hizkuntza-erabilerak aztertzen diren beste aldagaiekin. Proiektu hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan garatzen dugu 2004-2005 ikasturteaz geroztik.

2012. urtean proiektua ISEI-IVEI-rekin (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) koordinatu da. 2011. urtean Ebaluazio Diagnostikoa probaren bitartez jasotako datuen analisiak egin dira (EAEko LMH4ko eta DBH2ko ikasleek) eta emaitzen berri emateko txostenak landu dira.

Horrekin batera, jasotako datuen berri zabaltzeko eta datu horien gainean sakontzeko Jardunaldiak antolatu dira (2013ko urtarrilean egingo dira, VI. Euskal Soziolinguistika Jardunaldiaren baitan).



Babeslea



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Lankidea



2

Eralan 3

Zuzendaria: Nekane Goikoetxea
Arduradunak: Maite Alvarez de Zarate, Izaro Ugalde,
Rober Gutierrez, Imanol Miner eta J. Inazio Marko.
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola/p.suberbiola@soziolinguistika.org

2012ko urtariletik martxan da Eralan egitasmoaren 3. zikloa (Eralan3), bi urteko iraupena izango duena: 2013ko udazkenean amaituko da, Jardunaldi batekin.

2. ziklotik (2008-2010) 3. honetara egitasmoa zabaldu egin da, erakunde eta lankide gehiago bilduz bere baitan, eta ardurak ere banatu egin dira, *lidergo partekatuaren* printzipioa egitasmoari aplikatuz. 3 lan-ildotan garatzen da Eralan3 proiektua, horietako bakoitzak bere Garapen Taldea izanik. Guztira, 24 erakunde ezberdinetako 40 bat lankidek osatzen dituzte Eralan3-ko hiru Garapen Taldeak. Jarraian zehazten da bakoitzaren jardura-esparrua:

- 1) *Herri-administrazioan erabilera-planak berritzen* Garapen Taldea: administrazio-ko erabilera-planetan eraginkortasuna handitzea, hizkuntza-lidergoaren lanketaren bidetik.
- 2) *Prentsaurreak eta jendaurreko ekitaldiak* Garapen Taldea: praktika onen eta diskurtso egokien identifikazioa, lanketa eta aplikazioa, hizkuntza-lidergoaren lanketaren bidetik.
- 3) *Hizkuntza-portaera aktiboak erakundearen kulturaren argitan* Garapen Taldea: EPEsA metodologiaren aplikazioa gai horretan, ziklo oso bat eginaz.

Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bizkaia Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia





Proiektuak IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

3

ALDAHITZ HIZKUNTZA-OHITUREN ALDAKETA

Zuzendaria: Pello Jauregi
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
p.suberbiola@soziolinguistika.org

Aldahitz proiektuaren aztergai nagusia hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak dira. Konkretuki, 2010 eta 2011. urteetan lan-munduan kokaturiko azterketa bat egin da euskara etxean ikasi ez duten langileek lankideekin eguneroko harreman-hizkuntzan gaztelaniatik euskarara egindako aldaketa-prozesuen inguruan. Azterketa horren ondorioak 2011ko udazkenean zabaldu ondoren, 2012. urtean zehar jarraipena eman zaio proiektuari.

Ikerketaren ondorioetan hainbat gako identifikatu ziren aztertutako prozesuetan, langileek beren lankideekin eguneroko harreman-hizkuntza gaztelaniatik euskarara aldatzea errazten dutenak. 2012. urtean zehar, gako horietatik abiatuta errealitatean implementa litezkeen esperientzia pilotuen diseinuan aritu da proiektuaren Garapen Taldea. Landutako diseinu horren arabera, bi esperientzia pilotu garatuko dira 2013. urtean zehar.

Aurreko bi urteetako Garapen Taldearen egitura izan du proiektuak 2012. urtean zehar ere: Pello Jauregi irakaslea (EHU-UPV) zuzendari lanetan eta Klusterreko lau erakunde bazkideren partaidetza AEK-Ahize, Elhuyar Aholkularitza, Emun eta Hernaniko Udala.



4

UNIBERTSITATEKO EKINTZA-IKERKUNTZA EGITASMOA

Zuzendaria: Iñaki Martinez de Luna
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
p.suberbiola@soziolinguistika.org

2011. urtean abian jarritako proiektua da hau eta ondorengo hau du bere izen osoa: *Unibertsitateko euskal adarreko ikasleak: ekintza-ikerkuntza egitasmoa*.

Euskararen gaineko ezagutzak eta haren erabilerak ez dute bilakaera berdina izan azken urteotan EAEko gizartean, eta unibertsitate-arloa ez da horretan salbuespen bat. Proiektu hau beren ikasketak unibertsitatean euskaraz egiten dituzten I. mailako ikasleei zuzendua dago, eta ekintza-ikerkuntza paradigmaten baitan kokatzen da.

Proiektuaren helburua da ikertzea ea beren ikasketak euskaraz egitea aukeratzen duten I. mailako gazteekin fakultatean egindako interbentzioek ba ote duten eragirik ikaskideen arteko euskarazko erabilera gehitzeko garaian, eta nolako eragina duten interbentzio-mota ezberdinek.

Lehen interbentzioak 2011-2012 ikasturtean egin dira, EHU-UPVko hiru fakultate-tan: Gasteizko Irakasle eskolan, Gasteizko Gizarte Langintza eskolan eta Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean. Proiektuaren zuzendaria Iñaki Martinez de Luna EHU-UPVko irakaslea da, eta Emun eta Elhuyar Aholkularitzak egiten dituzte interbentzio-saioak. 2012-2013 ikasturtean ere interbentzio saioei jarraipena eman zaie, aipatu hiru fakultate horietatik bitan.

Proiektuak EHU-UPVko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren laguntza jaso du 2011-2012 ikasturtean.

Babeslea



EHU-UPV Euskara eta
Eleaniztasuneko Errektoreordetza

Lankideak



Gizarte eta Komunikazio Zientzien
Fakultatea



Gasteizko Gizarte Langintza
Unibertsitate Eskola



Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Proiektuak

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

5

HIZKUNTZEN EGOERA SOZIALA EUSKAL HERRIAN

Zuzendaria: Iñaki lurrebaso
Koordinatzailea: Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.org

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Soziolinguistika Klusterra Elkarteak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute hizkuntzen egoera soziala Euskal Herrian zer-nolakoa den zehazteko adierazleak eta horiek elikatzeko sistema osatzeko. Hizkuntzen egoera sozialaren berri emango diguten adierazleak behar-beharrezkoak direla inork gutxi jarriko du zalantzan. Are gehiago: adierazle horiek sistema batean kokatu eta, era antolatuan eta iraunkorrean elikatu behar direla askok eta askok ikusten dute. Egitasmo hau behar bezala garatzeko bi kontzeptu azpimarratu dira: iraunkortasuna eta kontsentsua. Sistemak iraunkorra izan behar du denboran zehar. Teknikoki bideragarria, egingarria eta azken finean, iraunkorra den sistema sortu behar dugu. Eta horretarako, eragile sozialen eta instituzionalen adostasuna ezinbestekoa da.

Iñaki lurrebaso, proiektu honen zuzendariaren gidaritzapean, bi maila horietan aritu gara lanean. Batetik, teknikoki sistema garatzeko oinarritzko definizioa eta ezaugarriak landu dira, horretarako bertako zein atzerriko hainbat adituren ekarpenak jaso ditugu. Eta bestetik, kontsentsu politiko, instituzional eta soziala lortzeko urratsak eman dira.

Babeslea



Gipuzkoako
Foru Aldundia

6

EUSKAL HERRIKO KALEETAKO HIZKUNTZA-ERABILERAREN NEURKETA

Zuzendaria: Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.org

Hizkuntzen kale-erabileraren Neurketa ezinbesteko erreferentzia da euskararen egoera soziala zertan den argitzeko. Eredu informaleko ahozko jardunari erreparatzen dionez, neurgaia bera ezin adierazgarriagoa da hizkuntzaren osasuna ebaluatu ahal izateko. Askoren iritziz ezinbesteko erreferentzia da Kale-Erabileraren Neurketa, ez bakarrik une jakin bateko erabileraren termometroa agertzen duelako, baita bilakaera eta joera ere erakusten duelako. Horien berri jakin gabe, nekez egin daiteke egiazko hizkuntza-plangintzarik.

Euskal Herri osoa barne hartzen duen ikerketa honen azken datu-bilketa 2011n burutu genuen. 2012an datuen prozesaketa, ustiaketa eta zabalpena egin dugu. Datuen irakurketari dagokionean edizio honek badu berezitasun bat. Duela bi urte laginketa eredu bat sortu genuen ikerketa honetara berariaz zuzendua, eredu horretan oinarrituta egin dugu datuen azterketa eta irakurketa. Neurketaren Batzorde

Teknikoko kideek –Xabier Isasik, Iñaki Martinez de Lunak, Rosa Ramosek, Iñaki lurrebasok eta Olatz Altunak– uztailean kaleratu zituzten VI. neurketako emaitza nagusiak hedabideen aurrean. Horrez gain, datuen eta datuen inguruko iritzien zabalpena EHUKo Udako ikastaroetan, BAT aldizkarian, eta Soziolinguistika Klusterreko webgunean egin da.



Babesleak



Kultura Salla
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATARITZA ETA
TURISMO SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Donostiako Udala
Euskara Zuzendaritza



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

eta herrietako neurketak
eskatu dituzten 47 Udal.





Proiektuak IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

7 GAZTEAK, SARE SOZIALAK ETA HIZKUNTZA KUDEAKETA

Koordinatzailea: Asier Basurto
a.basurto@soziolinguistika.org

Soziolinguistika Klusterra Elkartea, Emun eta Urtxintxa elkarlanean aritu gara egitasmo honen inguruan. Gazteek beraiek kudeatutako edo batez ere, gazteei zuzendutako sare sozialetan hizkuntzen kudeaketa zer nolakoa den aztertu da.

Lehenik eta behin, bi adituren iritzia eskatu genuen gaia kokatu asmoz: Gorka Julio eta Koldo Diaz.

Ondoren, sei kasu identifikatu ziren hainbat aldagai kontuan hartuta. Kasu horien deskribapena egin ondoren eta deskribapen horietatik abiatuta, hainbat gako eta aldagai identifikatu dira beste erakunde eta eragile batzuetan kontuan hartzeko moduko jarraibide eta aholku batzuk eman nahian.

Aipaturiko horiek guztiak egitasmoaren amaierako txostenean eta bideoan ikusi ditzakezue.

Babeslea



Lankidea



8 GASTEIZKO GAZTEAK: IKERKETA ETA LANTEGIAK

Koordinatzailea: Asier Basurto
a.basurto@soziolinguistika.org

Soziolinguistika Klusterra Elkartea Gasteizko 18 eta 24 urte bitarteko gazte euskaldunek hizkuntzen inguruan dituzten bizipenak eta pertzepzioak ezagutu ditu ikerketa honen bidez. Ikerketak bilatzen zuena aktore sozial batzuk (Gasteizko 18-24 urteko gazte euskaldunek) euren eta inguruko jokabideei (euskararen erabilera, ikasketa, irakaskuntza, politikak) ematen dizkieten zentzuak eta esanahiak ezagutu eta horietan sakontzea zen.

Ikerketaren testuingurua landu zen lehenik eta behin: alde batetik, gazteek euskarari buruz duten ikuspegia nola aztertu izan den eta azterketa horietatik zein ondorio atera izan diren jakitea komenigarri ikusi zen. Beste alde batetik, Gasteizko gazteria euskalduna diogunean zertaz ari garen irudikatzeko, sektore honen ezaugarri nagusiak ezagutzea beharrezko ikusi zen.

Ondoren informazio bilketari ekin zitzaion. Hainbat aldagai kontuan hartuta, bi eztabaida osatu ziren. Eta bi eztabaida horietan aipatutakoak izan dira ikerketa honen informazio oinarri.

Azkenik, eztabaida talde horietatik eratorritako edukien azterkari ekin zitzaion. Ikerketaren ondorioak eta gainerako xehetasunak helbide honetan kontsultatu ditzakezue: <http://www.soziolinguistika.org/nerabeaksaresozialak>

Ikerketak gazteen euskararen erabileraren inguruko gako batzuk identifikatu zituen eta zentzu horretan abiapuntu izan da, Soziolinguistika Klusterrak, Topagunea eta Geu elkartearekin elkarlanean antolatu dituen lantegietarako.

Babeslea



Lankidea



Proiektuak

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

9

HIZKUNTZA EKOLOGIA: EREDU TEORIKOAREN GARAPENA

Proiektuaren koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Hizkuntza-ekologia soziolinguistikaren arlo teorikoan eta normalizazio-prozesuetan ari direnen artean gero eta leku handiagoa hartzen ari den gaia da. Izan ere, XXI. mendeko erronka nagusien artean kokatzen da gizakiaren garapen iraunkor modura definitu den gaia. Esparru horretan lantzen da garapen ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa, eta baita ere, garapen kulturala. Testuinguru horretan hizkuntza-ekologiaren teoria eta praktika zabaltzen doan jakintza- eta praktika-esparrua da.

Soziolinguistika Klusterrak gaiaren inguruko bultzada sustatzeko lan-taldea osatu du, teoria eta praktika uztartzeko bidean, baliabideak eskaintzeko asmoarekin. Lan-talde hori UEMArekin eta Erreterriako Udalaren laguntzarekin abian jarri da helburu zehatz bat erdiesteko: euskal komunitatea trinkotzeko diskurtso berriaren ildo nagusiak definitzea eta praktikara eramateko tresnak eskuratzea. Lan-taldean Erreterriako, Zumaiaiko, Oñatiko eta Bermeoko teknikari eta arduradun politikoez gain Topaguneko eta Euskal Herriko Unibertsitateko kideek parte hatu dute Eusko Ikaskuntzarekin elkarkidetzan.



Bestalde, aurreko urtean bezala, Kutxabank prestatzen ari den EKOLOGUNE proiektuan aholkularitza tekniko eskaintzen ari zaio, bertan kokatuko baita Hizkuntzaren ekologiararen erakusketa ikuspegi praktiko batekin landuz. Horrez gain, bestelako proiektuak ere garatzen ditu Ekoguneak, interneten bitartez eskaintzen dituenak, esate baterako, hizkuntza-ekologiari lotutako II Euskararen ginkana.

<http://www.euskararenginkana.net/>



Babeslea



Erreterriako Udal

Lankidea



Oñatiko Udal



Zumaiaiko Udal



Babeslea



Soziolinguistikaren ezagutza kudeatzea behar-beharrezkoa da. Soziolinguistika- arloko ezagutza gaur egun kudeatzen duten erakunde, ikerlari, aditu eta bestelakoekin **elkarlanean** egingo dugu, ezagutza-fluxu eta sare horiek ezagutuz eta landuz. Honako bitarteko hauek erabiliko ditu besteak beste: **jardunaldiak, mintegiak, topaketa eta praktika komunitateak, argitalpenak, formazio-saioak eta interneteko tresnak**: webgunea, sare sozialak eta soziolinguistika telebista.

Proiektuak EZAGUTZAREN KUDEAKETA

1

BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Euskararen berreskurapen— eta normalizazio-lanetan diharduten eragileak soziolinguistikan eta glotopolitikan janztea da BAT Soziolinguistika aldizkariaren helburu nagusia. Horretarako Euskal Herriko nahiz atzerriko ekarpen esanguratsuak biltzen ditu.

BAT aldizkariko argitalpen batzordeko kideak Iñaki Martínez de Luna, Estibaliz Amorrortu, Inma Muñoa, Jone Miren Hernandez, Jean Baptiste Coyos, Lionel Joly, Maria-Jose Azurmendi eta Pablo Sotés dira. Urtean zehar, 50 egile inguruk parte hartu dute artikuluak idazten.

2012ko BAT aldizkariko zenbakiak honakoak izan dira:

- 82. zenbakia: **IV. HAUSNARTU: Euskal Soziolinguistika Sariak** egitasmoari zuzentzen zaio. Lehiaketaren lan irabazleak argitaratzen dira urteko lehen zenbakian, eta baita lehiaketara aurkeztu diren beste lan batzuk ere. 2012ko lehen honetan Paula Kasaresen, Dabid Anauten eta Maier Ugartemendiaren lan sarituak eskaini dira. Eta horiekin batera Aitor Lizarazu, Astigarraga, Mikel Ozaita, Jasone Aldekoa eta Enara Bellosoren lanak ere argitaratu dira.
- 83. zenbakia: **Kulturgintza euskararen garabidean**. Zenbaki honetan Soziolinguistika Kusterrak antolatutako V. Euskal Soziolinguistika Jardunaldian landutako gaiak eman ziren argitara, euskara eta kulturgintza gaiak ardatz hartuta. Jon Sarasua, Eduardo Apodaka, Erramun Baxok, Alberto Barandiaran, Gotzon Barandiaran, Igor Elortza, Jon Alonso, Nekane Goikoetxea, Amaia Zinkunegi, Julen Arexolaleiba izan dira artikulugileak.
- 84. zenbakia: **Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa. 2011. EUSKAL HERRIA**. Bereziki garrantzizkoa izan da aurtien zenbaki honetan landutako monografikoa, bost urtean behin egiten den neurketaren emaitzen aurkezpenari eta irakurketa kritikoari eskaini diogulako. Gainera, Eusko Jaurlaritzak urte berean eginitako V. Inkesta Soziolinguistikokoaren emaitzak eman eta elkarrekin alderatzeko moduan ere izan gara. Artikulugileak: Jacqueline Urla, Olatz Altuna, Iñaki Iurrebaso, Xabier Isasi, Iñaki Martínez de Luna, Rosa Ramos, Belen Uranga, Jon Aizpurua, Agurtzane Ortiz de Landaluze, Iñaki Iurrebaso, Iñaki Martínez de Luna, Patxi Juaristi, Miren Loinaz, Izaro Susperregi, Iker Martinez de Lagos, Mertxe Mujika, Nagore Iriberrri, José Ramón Uriarte.
- 85. Zenbakia: **V. HAUSNARTU: Euskal Soziolinguistika Sariak**. Lan sarituen egileak: Iñigo Fernandez Ostolaza, Xabier Bengoetxea Muxika, Antton Ugarte Muñoz. Gainerako egileak: Alfredo Dufur Otheguy, Iñaki Lazkano Lizundia, Paula Kasares, Antton Ugarte Muñoz, Maxixatzen euskara elkarteak

Soziolinguistika Klusterrak BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratu diren artikuluak (azken laurak izan ezik) Interneten jartzen ditu eskura helbide honetan:

<http://www.soziolinguistika.org/bat>

Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Salburuondetza



Proiektuak EZAGUTZAREN KUDEAKETA



2

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIA

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

V. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia Miramon Zientzia Museoa burutu zen Soziolinguistika Klusterrak antolatuta. Jardunaldia hausnarketa teorikoan eta maila aplikatua euskalgintzan ari direnei zuzenduta egon zen eta bertan elkartu ziren ehun bat lagun. Ikerlarien, unibertsitateko irakasleen, eta ikastetxeetan, lan-munduan eta administrazioan euskararen normalizazioan ari direnen topagune izan ohi da jardunaldia, eta horretarako, hitzaldi, lan-saio, mahai-inguru eta elkarrizketak antolatzen dira, eskura dauden datuak partekatuz, horien inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko. Edizio honetan landutako gai nagusia *Kulturgintza euskararen garabidean* izan da. Eta gai horretan zeresan garrantzizkoa duen Sorguneak ikertegiaren laguntza berezia izan dugu (Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatea).

Horregatik, euskal kulturaren produkzioa eta transmisioa aztertu da modu diakronikoan, produktuaren nolakotasuna kontuan hartuta. Interes berezia jarri da gizarte-aldaketak, eta kultura eta identitatea harremanetan jartzen dituzten ekimenak aztertzeke; euskalgintzaren beharrak ezagutu dira kontuan izanda globalizazioak dakarren aldaketa kulturala.

Jardunaldian hizlari edota kolaboratzaile moduan honako adituak izan dira: Jon Sarasua, Igor Elortza, Gotzon Barandiaran, Juan Luis Zabala, Alberto Barandiaran, Miren Arregi, Josune Aldekoa, Gorka Bereziartua eta Eduardo Apodaka.

Ezin ahaztu, bestalde, Jardunaldian Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* ome-nezko ekitalditzoa eskaini geniola.



Laguntzaileak:



Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Salburuordetza



Donostiako Udala
Euskara Zuzendaritza





Proiektuak EZAGUTZAREN KUDEAKETA

3 SOZIOLOGIA IKASTAROKAK EHUren UDAKO IKASTAROETAN

Koordinatzailea: Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.org

“Euskararen erabileraren bilakaera, egoera eta norabidea, datuen argitan” izeneko ikastaroa antolatu genuen uztailan. Ikastaroan euskararen egoeraz arduratzen diren bi ikerketa kuantitatibo nagusien azterketa egin zen, Inkesta Soziolinguistikoa eta Hizkuntzen erabileraren Kale-Neurketarena. Izan ere, bi ikerketen azken emaitzak kaleratu berri zirenez, une egokia zen emaitzak aztertu eta ondorioak ateratzeko. Ariketa hau ikuspegi desberdinetako jende ugariaren artean egin zen. Honako helburu hauekin antolatu zen ikastaroa:

- Inkesta Soziolinguistikoa eta Euskal Herriko Kale-Erabileraren Neurketaren emaitza nagusiak aurkeztea.
- Pertsona eta eragile erreferentzialek datuez egiten zuten irakurketa zabaltzea.
- Euskararen bilakaera, egoera eta norabideaz hausnarketa egin, eta eztabaida sortu eta sustatzea.

Ikastaroan ondorengo adituek parte hartu zuten: Olatz Altuna, Jon Aizpurua, Agurtzane Ortiz de Landaluze, Iñaki Iurrebaso, Albert Fabá, Iñaki Martinez de Luna, Sagrario Aleman, Iñaki Lasa, Iker Martinez de Lagos, Paxkal Indo, eta Rosa Ramos.

Soziolinguistika Klusterrak ikastaroko zuzeneko materiala eta bideoak eskaintzen ditu:
<http://www.soziolinguistika.org>

Babeslea



4 SOZIOLOGIA IKASTAROKAK UEUren UDAKO IKASTAROETAN

Soziolinguistika Klusterra Elkarteak “Soziolinguistika: kontzeptu nagusiak” ikastaroa antolatu zuen UEUren udako ikastaroetan, Baionan, uztailaren 4an eta 5ean.

Irakasle gisa, Arkaitz Zarraga, Soziolinguistika Eskuliburuaren egileetako bat. Ikastaroaren helburua, Soziolinguistikaren oinarriko kontzeptu, ideia, teoria eta gaiak begien aurrean jarriko dizkion formazioa ematea zen.



Proiektuak EZAGUTZAREN KUDEAKETA

5

EUSKARAREN NORMALIZAZIO KASU AURRERATUAK

Ezagutzaren Clusterraren “Kudeaketa aurreratuko enpresak” koadernoak oinarritzat hartuta abiatutako proiektua da hau. Proiektu honen helburu nagusia euskararen normalizazioan emaitza arrakastatsuak izan dituzten erakundeen esperientziak ezagutzera ematea da. Esperientzia hori formatu irakurterrazean idatzita, erakunde horiek lortutako arrakastaren gakoei buruz gogoeta suspertu eta euskararen normalizazioan baliagarriak diren ikuspegi eta praktikak hedatu nahi dira enpresa-, unibertsitate- eta administrazio-arloan.

Orain artean, Elay eta Eika, IMH eta Bergarako Udala, Lizarra Ikastola eta Txingudi Ikastola, Goizper eta Elkargiko Kasuak argitaratu eta zabaldu ditugu. 2012an, KIDE Kooperatiba Elkarte eta BBK izan ditugu aztergai.

Joxpi Irastortzak (Mondragon Unibertsitatea, Huhezi) zuzendu du proiektua eta Innobasqueko Idoia Bidaurrezaga izan dugu aholkulari.

Informazio gehiago hemen: <http://www.soziolinguistika.org/eu/kasuak>


Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kultura Saila
Hizuntza Politikarako
Salburuordetza



Proiektuak EZAGUTZAREN KUDEAKETA

6

HAUSNARTU.

EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

Koordinatzailea: Belen Uranga
b.uranga@soziolinguistika.org

Hizkuntzaren berreskurapenaren bidean ezagutza aplikatua lantzea ezinbestekoa da, baina ezagutza aplikatu horrek oinarritzko teorietatik jaso behar du bere funtsa. Oinarritzko edo purua deritzon ikerketa eta hemendik atera litekeen ezagutza garrantzia, beraz, behar-beharrezkoa da. Horretarako gune naturala unibertsitatea izan ohi da, eta, horregatik, Soziolinguistika Klusterraren erronka unibertsitateko irakasleak soziolinguistikaren ikerketa-lerro hauetara erakartzea da.

HAUSNARTU Soziolinguistika Sarien IV edizioa antolatu zuen Soziolinguistika Klusterrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin.

Asmoa da dagoeneko euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena izan duten ikerlarien lana bultzatzea eta oraindik harremanik izan ez duten ikerlariak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea. Horrela, soziolinguistikatik bertatik egindako garapen berriak ez ezik, beste adar zientifiko horien ekarpenak ere bultzatzea da sari hauen xedea. Modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarri teorikoak zabaltzeko eta aberastuko dira.

2012ko epaimahai-kideak ondorengoak izan dira: Iñaki Martínez de Luna, EHUKo irakaslea eta BAT Soziolinguistika aldizkariaren argitalpen batzordekoa, Pello Jauregi, HUEZIKo irakaslea, Joxean Amundarain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Teknikaria eta Iván Igartua, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako koordinazio zuzendaria. Mahai horren arabera lehiaketaren irabazle izan dira ondorengo lanak:

- Lehen saria, 1.500 €
Hizkuntza gutxituen eraginkortasuna pertsuasio prozesuetan.
Euskararen kasua EAEn.
Iñigo Fernandez Ostolaza
- Bigarren saria, 1.000 €
Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa.
Xabier Bengoetxea Muxika
- Hirugarren saria, 700 €
Federiko Krutwigen asmo soziolinguistikoa gerraostean (1949-1951).
Antton Ugarte Muñoz

Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza



**Iñigo Fernandez
Ostolaza**
2012ko HAUSNARTU
Sarietako irabazlea

Saritutako lan guztiak BAT Soziolinguistika aldizkariaren 85. Zenbakian argitaratu dira.

Era berean, aurreko ediziotan saritako lanak honako helbidean daude eskuragarri:
<http://www.soziolinguistika.org/hausnartu>

Proiektuak EZAGUTZAREN KUDEAKETA

7

AHOZKO HIZKUNTZA-ERABILERA BEHAKETA BIDEZ NEURTZEKO METODOEN ARGITALPENA

Idazle eta koordinatzaileak:
Olatz Altuna eta Asier Basurto
o.altuna@soziolinguistika.org

Hizkuntza-erabileraren behaketek ibilbide luzea dute Euskal Herrian. Siadecoren eskutik, 80ko hamarkadan egin ziren lehenengo behaketak hainbat udalerritan, eta lauzpabost urteko epean errepikatu izan dira, besteak beste, bertan eskuratzen ditugun datuak oso baliagarriak direlako hizkuntzaren bizi-indarraren jarraipena egiteko. Horregatik, urtez urte geroz eta udalerrri gehiagotan egiten dira behaketak edo kale-neurketak.

Soziolinguistika Klusterrak urteak daramatza metodologia aplikatu eta garatzen. Dagoeneko urteetako esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dugu. Hemendik kanpo ere, geroz eta ezagunagoa da ikerlana. Aipagarria da, gainera, atzerrian ikerlanak sortu duen jakin-mina eta interesa.

Euskararen egoera diagnostikatzeko hain baliagarria zaigun tresna ezagutarazi nahi diogu mundu zabalarri, eta bereziki hizkuntza gutxiagotua duten komunitateei zein hizkuntza-aniztasuneko egoerak aztertzeko, ahozko erabilera kuantifikatu nahi duten ikerlariei. Helburu horrekin “Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa. A guide to language use observation survey methods” argitalpena kaleratu dugu, euskaraz eta ingelesez. Proiektu honek Network to Promote Linguistic Diversity –NPLD–, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren laguntza izan du.

Babesleak



Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza



8

FORMAZIO-SAIOAK ETA JARDUNALDIAK

Soziolinguistikaren inguruko hainbat formazio saio eman ditugu 2013an:

- “Soziolinguistika, kontzeptu nagusiak” ikastaroa eman zuen Arkaitz Zarragak, Artez Euskara Zerbitzuetan eta Lasarte-Oriako Berritzegunean.
- Hizkuntza ekologiaren inguruko hainbat formazio saio eman ditugu eta hainbat jardunalditan parte hartu dugu:
 - Durangoko Berritzegunean
 - Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean
 - Nafarroako euskara teknikarien sarean
 - Euskara Hitzun Bila Jardunaldian.
- Aldahitz egitasmoaren harira formazio saioa eman genuen HABEn.
- Udaltop Jardunaldietan parte hartu genuen Eralan egitasmoarekin.



9

SOZIOLINGUISTIKAZ BERRIPAPER

Koordinatzailea: Asier Basurto
a.basurto@soziolinguistika.org

SOZIOLINGUISTIKAZ berripaper elektronikoa euskararen normalizazioarekin eta, orokorrean, soziolinguistika-arloko argitalpen, ikerketa, ekimen eta abarrekin lotutako informazioa zabaltzeko orri elektronikoa da. Soziolinguistika Klusterrak atondu eta doan zabaltzen du web eta posta elektroniko bidez gai hauetan interesa dutentzat.

Soziolinguistikaz berripapera euskarri elektronikoan banatzen da eta formatu laburreko albisteak biltzen ditu; kasu bakoitzean informazio zabalagoa eskuratzeko dago-kion lotura jarriz.

Soziolinguistikaz berripapera bi hilabete behingo maiztasunez 800 bat helbidetara zabaltzen da. Tartean dira udaletako euskara-zerbitzuak, euskara-elkarteak, erakunde ezberdinetako euskara-teknikariak, irakaskuntza-arloan normalizazioaren plangintzetan dihardutenak, unibertsitateko irakasleak, euskaltegiak...

Proiektuak EZAGUTZAREN KUDEAKETA

10

INTERNETA

Koordinatzailea:
Asier Basurto
a.basurto@soziolinguistika.org

WEBGUNEAK

Klusteraren misioan bertan ageri da soziolinguistika-ezagutza zabaltzeko eginbeharra, eta gaur gaurkoz gure webgunea da soziolinguistikaren inguruko informazioa hedatzeko daukagun tresnarik eraginkorrena. 2012an webgunearen itxura berritu dugu, atsegina eta erabiltzeko errazagoa izan dadin.

Soziolinguistika Klusteraren webguneak bi lerro nagusi ditu: bata, Klusterreko kideei eta proiektuetan parte hartzen ari diren aditu eta bazkideei begirakoa; proiektuen garapenean sortutako informazioa partekatzerara bideratutakoa. Bestea, publiko zabalarari eskaintzen zaion informazio bilduma, batez ere proiektuen emaitzetan oinarritutakoa.

2012an zehar **www.soziolinguistika.org** webgunean egindako berrikuntza nagusiak hauek izan dira:

- Webgunearen sarrera-orria berritu da.
- Erakundea eta bere proiektuen inguruko informazioa menu-barra nagusian kokatu da. Baita Elkartearen lan arloen inguruko informazioa ere.
- Portadaren erdialdea albisteei eskaini zaie. Hainbat atal berri sortu dira.
- Ahalegin berezia egin da, oinarritzko informazioa gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egon dadin.


Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kultura Saila
Hizuntza Politikarako
Salburunordea



Proiektuak EZAGUTZAREN KUDEAKETA




SARE SOZIALAK: TWITTER ETA FACEBOOK

Facebook eta Twitter sare sozialetan profilak ditu Soziolinguistika Klusterrak eta webguneko albistegiarekiko balio erantsia ekarri dio horrek orain arteko komunikazio gaitasunari.

Webguneko albisteak hartzailer interesdunei zuzenean bidaltzeko aukera eman digute sare sozialek eta, horrenbestez, gure jardunaren kanporako irisgarritasunak hobekuntza nabarmena izan du. Gainera, aipatutako sare sozial horietako gure jarraitzaileen *feedback* zuzena etengabe jasotzeko balio izan digu eta, horrek, askotariko eragileekiko lankidetzat estuagorako bideak zabaldu ditu.

Era berean, gure intereseko erakunde zein norbanakoen jarraipena egiten dugu Facebook eta Twitter bidez eta gure gertuko (bazkideak, kolaboratzaileak...) bozgorailu rola ere hartu dugu.





Bazkide izatearen onurak



- ESPARRU TEORIKOA EDOTA APLIKATUA LANTZEN DUTEN ERAGILEEKIN ELKARLANEAN ARITZEKO AUKERA IZATEA.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN INGURUAN BILDUTAKO ERAKUNDE ETA ADITU-SAREAZ BALIATZEKO AUKERA IZATEA.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN BIDEZ, NORBERAK BERE KABUZ LANDU EZINGO LITUZKEEN PROIEKTUAK LANTZEA ETA HORIEN GARAPENEAN PARTE HARTZEA.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRAREN INGURUKO INFORMAZIO ETA FORMAZIO GAURKOTUA JASOTZEA.
- ERAGILEAK EGITURATUTA EGOTETIK SOR DAITEKEEN EMAITZAK JASOTZEA.
- SOZIOLOGIA EZAGUTZAREN GARAPENAREN BIDETIK, ERAKUNDEA BERA LANTZEN ARI DEN EUSKARAREN BERRESKURAPEN PROZESUA ERAGINKORTZEA.
- KLUSTERRAK GARATZEN DITUEN PROIEKTU ZEHATZETAN PARTE HARTZEKO AUKERA.
- KLUSTERREKO (ERAKUNDEARI BURUZKOA) INFORMAZIO ZUZENA JASOKO DUTE.
- KLUSTERRAK ANTOLATUTAKO EKITALDI PUBLIKOETAN (PROIEKTUEKIN LOTUTAKO JARDUNALDI TEKNIKOAK, EHUKO UDAKO IKASTAROAK, SOZIOLOGIA JARDUNALDIAK...) IZENA EMATEKO LEHENTASUNA IZANGO DUTE.
- PREZIO BEREZIAK IZANGO DITUZTE SOZIOLOGIA KLUSTERRAK ARGITARATUTAKO LIBURU ETA BESTELAKO MATERIALA EROSTEKO.

Izan zaitez Soziologia Klusterreko bazkide!!!







SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA

2012ko MEMORIA